

Euskararen normalizazioa eta erabilera epaitegietan: ekimenak eta emaitzak

1. Sarrera

Lan honetan Justizia Administrazioan euskararen normalizaziorako martxan jarri diren proiektuak eta horien bidez eman diren eta ematen ari diren aurrerapausoak aztertzea da nire nahia. Zehazkiago esanda, herritarrontzat oso garrantzitsua den agirien elebitasuna aztertuko dut, duela egun batzuk argitaratu den 2011. urteko datuak azaltzen dituen txostenean oinarrituz.

Urteetan zehar hainbat izan dira abian jarri diren proiektuak Justizia arloan. Azken hamarkadetan egin diren proiektuetan euskararen normalizazioa kontutan hartu da, nahiz eta xede hori betetzeko hartu diren neurriak ez dute beti eraginkortasun bera izan. Argi dago, denboraren poderioz proiektuetan erabili diren baliabideak gero eta eraginkorragoak direla, aurreko esperientziak kontutan hartzen joan baitira.

2. Epaibi

Epaibi euskara Justizia alorrean normalizatzeko proiektua da; helburu hau lortzeko egin beharreko bidea, oso bide neketsu eta zaila da, baina posiblea zenbait ekimen aurrera eramanez gero. Konkretuki bost alderdi jorratzen dituzte egitasmo honetan:

1. Euskarari garrantzia ematea, hedapena ematea eta euskararen erabilera sustatzea bai herritarrarekiko harremanetan bai eguneroko lanean.

2. Euskarazko zerbitzuen eskaintza handitzea herritar eta profesionalen artean euskararen erabilera bultzatzeko. Horretarako:

-Euskarazko terminologia juridikoa garatu eta hedatu.

-Euskarazko agiriak euskaraz normalizatzea, erabilera sustatzeko.

(Lan honetan sakonduko den gaia)

-Informatizazio-prozesuan euskara-irizpidea sartzea.

-Epaitegien barne-egituraketan eragitea.

-Herritarrek Justizia Administrazioarekiko harremanetan euskara erabil dezaten bultzatzea.

3. *Justizia Administrazioiko langileek euskara erabiltzeko duten **inplikazioa handitzea.***

-Hizkuntza-eskakizunak esleitzea.

-Justizia Administrazioiko langileak euskararen trebatzea.

-Euskarazko laguntza-materiala sortzea, bai prestakuntza-materiala bai lan-tresnak.

-Euskaldunak ez diren langileak inplikatzeko epaitegietan euskara erabil dadin.

4. ***Epaileen, fiskalen eta idazkari judizialen artean euskararen normalizazioaren aldeko jarrera sustatzea.***

5. ***Abokatuen elkargoetako kideak** sentsibilizatzea eta gaitzea, hizkuntz gaikuntzarako hitzarmenen bitartez, eta euskaraz lan egitea errazten duten tresnak sortu eta abokatuek horiek erabil ditzaten bultzatzea.*


Hauek dira euskararen erabilera Justizia Administrazioan posible egiteko, hots, euskaldunok gure hizkuntzan komunikatu ahal izateko eskubidea bermatzeko, landu diren esparruak. Ezbairik gabe, eman diren aurrerapausoak handiak izan dira, baina euskararen normalizazioaren bidean hainbat oztopo gainditzeaz daude oraindik.

Lan honetan euskarazko agiriak normalizatzeari eta haien erabilera sustatzeari garrantzia aztertuko dugu, horretarako pasadan urteko datuak eskaintzen dituen txostena erabiliko dugu hurrengo azpitu-tituluan.

3. Euskarazko dokumentuak

Urtarrilaren 11n Justizia Administrazioan euskaraz eta gazteleraz egindako dokumentuen kopurua aztertzen duen txostena argitaratu zen. Dokumentu honetan bi hizkuntzetan egindako testuen bilakaeraren inguruan egin den ikerketaren emaitzak, 2011. urteari dagokionez, baikorrak direla esan genezake orokorrean, guztira dokumentuen %35a elebidunak baitira.

3.1 2004-2011 Justizia Administrazioiko dokumentu elebidunen kopurua:



2004-2011 Justizia Administrazioiko dokumentu elebidunen ehunekoaren bilakaera

elebidun	1988854
gaztelaniaz	3719442

2004-2011 Justizia Administrazioiko dokumentu elebidunen eta gazteleraizko dokumentuen kopuru zehatza

Grafikoa aztertzen badugu, argi dago hobekuntza handia izan dela azken urteotan. Hainbat izan dira Euskadiko Justizia Administrazioan martxan jarri diren Informazio Sistemak. 1990. urtean EJ plana ezarri zen Justizia Administrazioan, eskaintzen zen zerbitzua modernizatzeko asmoz, antolakuntza hobetuz eta arinduz. 2005. urtean JustiziaBat abian jarri zen; herritarrei eskainitako zerbitzuak informatika eta bide digitalen bidez jasotzea ahalbidetzeaz gain, proiektu honen helburuen artean Justizia Administrazioa elebiduna sustatzea dago. Adituen aburuz, EJ proiektua indarrean egon zen urteetan lortu ziren emaitzak eta JustiziaBat indarrean daraman urteetan lortutakoak konparatuz, dokumentu elebidunen alorrean JustiziaBat proiektuaren eraginkortasuna askoz handiagoa izan da. Azken plan honen helburuak hauek dira:


- Lan antolaketarako metodo berriak ezartzea
- Prozesuen benetako kudeaketa egitea eta protokolarizatzea
- Teknologia berrietan formakuntza planak martxan jartzea

- Giza baliabideen kudeaketa arduratsua egitea
- Gure erkidegoaren kasuan, **Justizi Administrazio Elebiduna sortzea**

Proiektu honekin beraz, euskara bultzatu nahi izan da eta xede hori gero eta hurbilago dagoela antzeman daiteke eman diren lorpenak ikusita: 2004. urtean dokumentu elebidunak %9 baino ez ziren, 2011. urtean berriz %35, hau da, zortzi urteren bitartean agiri elebidunen kopurua %26-ko gehikuntza izan du. Aurrerapen hau oso garrantzitsua izan da kontutan harturik zein lan gogorra dagoen dokumentuak ele bietan idaztearen atzean; hortaz, nahiz eta %100-era heltzeko oraindik bide luzea egon, abiadura honekin urte batzuen buruan helmugara ailegatuko gara.

3.2 2011 urtearen bilakaera


Erabilera elebidunak 2011 (Jbat + Ej)



2011. urtean dokumentu elebidunen bilakaera

JustiziaBat eta EJ proiektuen emaitzak hilero aztertuz gero, joera egokia dela ondoriozta dezakegu. Urtarrilaren ehunekoak abenduak ehunekoarekin alderatuta, sekulako jauzia eman du, konkretuki %14-koa. Dударik gabe, 2011. urteko lehenengo hilabetetako emaitzak berdintsuak dira, beraz ez zen aurrerapen handirik eman hil horietan. Urtearen bigarren erdiari begiratu ezker, ordea, aurrerapausoak bikainak izan direla ikus dezakegu.


JustiziaBat-eko 2011ko bilakaera:



2011. urtean dokumentu elebidunen bilakaera JustiziaBat bakarrik kontutan izanda.

JustiziaBat proiektuaren aplikazioa bakarrik kontutan hartzen badugu, datuak askoz hobeak dira, eta horrek proiektu honen emankortasuna agerian uzten du. Hori dela eta, behin EJ planaren aplikazio zaharra guztiz ordezkaturata egon, datuak hobeagoak izatea eta hizkuntza bietan egindako dokumentuen bilakaera azkarragoa izatea espero daiteke.

3.3 Zitazio zedulen, jakinarazpenen eta errekerimendu dokumentuen 2011. urteko emaitzak.



Zitazio zedulen, jakinarazpenen eta errekerimendu dokumentuen 2011. urteko emaitzak

Dokumentu konkretuetako datuei erreparatzen badiegu, herritarrek zuzenean jasotzen dituzten agirietan (zeduletan, jakinarazpenetan, errekerimenduetan) emaitzarik onenak ikusten dira eta horrek ondorio oso garrantzitsuak ditu. Alde batetik, herritarrei euskara erabiltzeko eskubidea gutxika bermatzen ari zaie. Bestetik, eta aurrekoarekin lotura zuzena duena, herritarrek Justizia Administrazioan euskara erabiltzeko benetako aukera badagoela konturatzen ari dira.

2011ko abenduko datuak:

	ZEDULAK	%	JAKINARAZPENAK	%	ERREKERIMENDUAK	%
ELEBIDUN	14380	87%	49360	100%	2161	75%
GAZTELANIAZ	2174	13%	58	0%	723	25%

2011ko abenduaren datuak: kopuru zehatzak eta ehunekoak.

Abenduko kopuru zehatzak adierazten duen taula honetan, aipatzekoa da jakinarazpenen emaitza ezin hobek, %100ko jakinarazpenak elebidunak izan baitira. Zedula eta errekerimenduen lorpenak onak ere badira, %13 eta %25, baino ez da falta mota hauetako agirien ehuneko ehuna elebidunak izateko, hurrenez hurren.

4. Ondorioak

Justizian euskara bai ahoz bai idatziz inongo mugarik gabe erabiltzea da helburua. Alde batetik, ahozko erabilera berebiziko garrantzia du alor honetan, epaiketetan bai abokatu, epaile, demandatu... ahozko forma erabiltzen baitute komunikatzeko. Bestalde, eta ahozko forma alde batera utzita, idatzizko formaren garrantzia izugarria da Justizian. Burokrazia beharrezkoa da, eta paperezko euskarrian zein euskarri elektronikoa dauden dokumentu ugari trukutzen dira Justizia Administrazioa eta herritarren artean.

Euskararen ahozko erabilera lortzea zailagoa izango da. Prozesu hau motela da, epaitegietako pertsona orori formakuntza eman behar baitzaio eta horrek denbora epe luzea behar baitu. Idatzizkoan, aldiz, dokumentu ereduak bi hizkuntzetan eskaintzea lan eta esfortzu handia dakar ere, baina euskaraz ez dakiten pertsonak ele bietan dauden dokumentuak jaso ditzakete. Gainera, plan interesgarria jarri da martxan, zeinari esker elebidunak ez diren langileak egoteak ez du oztopatuko dokumentu elebidunen erabilera. Agiri judizialtako testu librean kasuistika memoria batean jaso da eta testu libre horiek euskaratuko dira. Honi esker, epaitegietako langileek gaztelaniazko eredu osatzeko testu libreak idazten dituztenean, automatikoki euskarazkoa osatuta geratuko da. Horrela, sistema honen bitartez, nahiz eta dokumentuak gazteleraz bete, euskaraz egongo dira berehalakotasunez.

Gizartea oraindik ez da euskarazko agiriak erabiltzera asko ausartzen eta gaztelerazkoak erabiltzen jarraitzen dute. Beste askok ordea, euskarazkoak erabiltzen dituzte baina gehienbat garrantzi gutxienerako arazoetarako. Esate baterako, errekerimendu bat euskaraz jasotzera ausartzen dira, baina epaiketetan, jendea gauza ziurretera jotzen du.

Nahiz eta hainbat dokumentuen elebitasuna bermatuta egon, herritarrek dira agiri horiek erabili behar dituztenak. Hau ez da gertatuko herritarrak hizkuntza horretan eroso sentitu arte eta hizkuntza horren erabileran konfiantza osoa eduki arte, hau da, euskara zein gaztelera erabili erantzuna bai azkartasunari bai mamiari dagokionez berdina izango dela jakin arte.

5. Bibliografia

2011. urtean eredu elebidunen igoera:

<http://www.justizia.net/albisteak/eredu-elebidunen-erabilerak-gora-egin-du-2011n>

http://www.justizia.net/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3Deredu-elebidunen-erabilerak-2004-2011_2.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290508046575&ssbinary=true&miVar=1326552049848

http://moodle3.ehu.es/file.php/376/2._modulua/2.3._ataza/2.3.1._jarduera_egiteko_baliabideak/Auzitegiaren_testuen_estandarizazioaz.pdf

EPAIBI:

<http://www.justizia.net/epaibi/testua?id=1241023007562>

EJ eta JUSTIZIABAT sistemak:

<http://www.socinfo.es/contenido/seminarios/vasco2/justicia.pdf>